



Sagardoetxea
herri baten erroak

"SAGARDOAREN HIZTEGIA"

Kontaktua

Miel Joxe ASTARBE, egilea

Urkiri SALABERRIA, Hezkuntza eta Ondare Departamentua

José Mari ALBERRO, Sagardoetxea Museoaren Arduraduna

943 550 575

Sagardoetxea Museoak hiztegi bat kaleratu du, sagar eta sagardo munduko bostehun hitz ingururekin

“Sagardoaren Hiztegia”, euskara eta sagardoa

Sagardoetxea Museoak “Sagardoaren Hiztegia” argitaratu berri du, herri jakituriatik bildutako sagar eta sagardo munduko bostehun hitz ingururekin. Miel Joxe Astarbe izan da urte luzetan lan isil eta garrantzitsu hau egin duena, eta euskal herriko kultur ondarean eta usadioan zegoen hutsune bat betetzen du.

Miel Joxe Astarbek sagardo munduko hitzak berreskuratu eta gordetzeko duen kezka aspaldikoa da, bera sagardo munduan hezi baitzen Mendiola baserria eta Astarbe Sagardotegian.


1983an, Astigar elkarteak argitaratutako Astigarraga aldizkariak eman zuen argitara bere lehen lana: ehun hitz dituen hiztegia, bere aitona, Manuel Astarbek, eta bere aitak Jose M^o Astarbek, erakutsitako hitzekin batetik, eta bere esperientzia eta azterketek erakutsitakoekin, bestetik.

Lan hau etengabe egin izan du bere bizitzan eta Sagardoetxea Museoa sortu izanak urte guzti horietako lana argitara ateratzea ahalbidetu du. Museoaren helburua da sagardo kulturaren inguruko gauzak berreskuratu, zaindu eta zabalitzea, kasu honetan hizkuntzari lotutakoak, generazioz generazio guganaino iritsi diren hitzak.

Museoko Hezkuntza eta Ondasun Saileko Urkiri Salaberria lankide estua bihurtu da eta hiztegiaren proiektuko bultzatzailea, bere ideietako batean betez bete jotzen baitu: euskara sagardo munduan.

Sagardoetxea Museoak euskaltegiekin hasitako bidetik sortu da Hiztegiaren egitasmoa, euskal kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin. Hasierako pauso haiek bide egin dute eta herritar guztiei zuzendutako hiztegi bat argitaratzera iritsi gara, sagar eta sagardo mundua eta euskara maite dutenei bereziki.





30

Dolarean

ordatz

Sagar-patsa estutzen duen fresneria gora eta behera ibili ahal izateko zutabe biribil eta kiribilduna.

aska

Siri. zugin
Jotako sagar-patsa zainpatzeko tokia.

ozpi-subil

Dolara-askaren azpialdean ardatzen eusten dion urkatxo tonkerako egurra.


baldar

Sagarna matxakara bultzatzeko erabiltzen den lanabesa. Eskuarekin antzekoa da, baina hortak izan beharrean itsua da.



basaeratz

Basoko hainbat landareekin egindako errotaren moduko tresna; dolarean iragazki gisa erabiltzen zen.



beratze

Jotako sagarna dolarean biguntzen uztea. Horrela, gero, estaldia erositza hobetu ahal da, baita atzeratzen den mustia ere legamari abaltzen ere.

bolandero

Matxaka edo sagarna jotzeko makina eskuz eragiten zuten, inertzia habeto aprobetxatzeko kitzimak zituen gurpil handia.

Sagardoaren Hiztegia. Datuak

Argitaratzailea

Sagardun Partzuergoa

Egileak

Miel Joxe Astarbe, Urkiri Salaberria

Terminologia aholkularitza

UZEI, Terminologia eta Lexikografia Euskal Zentroa

Ilustrazioak

Antton Olariaga

Hitzak

495

Orrialdeak

84

Formatua

A5

Ale kopurua

5.000